

# DROGETEN

ITURRI

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria. 296. zenbakia. 2021eko urtarrila

**Neguan ere,  
itsasoan gustura**





# IRAZABAL

---

## clínica dental



**Ainhoa Zulueta**  
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.  
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,  
Periodontzian, inplantologian.  
**Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian.  
**Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomaturia.  
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**  
Hortz-Estetikan Diplomaturia.  
**Autran Institutua. Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza.  
**New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa.  
**Anibal Alonso Doktorea.**

**Astelehenetik ostiralera:**  
**8:00**etatik **22:00**etara  
**Zapuetan:**  
**10:00**etatik **14:00**etara

# Irribarreetan adituak

## Etor zaitez gu ezagutzera

### Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

**JARRAI IEZAGUZU**

**f** Facebooken: Clínica Dental Irazabal [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk. - **20600 EIBAR**  
Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)

**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.

**HELBIDEA:**

Erdikokale zeharbidea 2, 1.  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com  
www.euskalbirusa.eus

**ERREDAKZIO TALDEA:**

Alazne Aiestaran,  
Amaia Arginzoniz,  
Estibalitz González,  
Asier Ibaibarriaga  
Jon Saez,  
Libe Solozabal,  
Dorleta Vidal  
eta Irati Yarza.

**KOORDINAZIOA****ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

**HIZKUNTZ ARDURADUNA:**

Alazne Aiestaran.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Bea Narbaiza.

**LAGUNTZAILEAK:**

Antonio Hernández 'Cuco',  
Óscar Gómez, Eskolabarri,  
Patxi López eta  
Valentin Mugarza.

**ARGAZKIAK:**

Manolo Álvarez,  
Ricardo Combi,  
DAPA kultura, ELA,  
Eskolabarri,  
Óscar Gómez, Estibalitz  
González, LAB,  
Valentin Mugarza,  
Bea Narbaiza,  
Ignacio Pérez,  
Juan Luis Totorika,  
Julen Uribe  
eta Dorleta Vidal.

**PUBLIZITATEA:**

943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**

Piedi Eizagirre,  
Ayoub Hdidou  
eta Olatz Vidal.

**TIRADA:**

2.425 ale.

**ISSN:**

11 33-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-21 3/1994.

*Drogeteniturrik ez du  
bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako  
iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko kantuak

*Herritarron ahotik*

Gaia: ume-kantua

## Txalo pin txalo

(Entzuteko: [www.alboka.es](http://www.alboka.es))

Txalo pin txalo  
txalo ta txalo,  
katutxua mizpillan  
gaiñian dago.

Badago bego,  
bego badago,  
zapatatxu barrixeri  
begira dago!  
Txalo!



## Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA .....4 Ricardo Combi (Peru)	ZAHARRAK BERRI.....16 Manolo Álvarez entrenatzaile ohia
ERREPORTAJEA .....5-7 Koronabirusa eta lan mundua	ESKOLEN TXOKOA.....17 Eskolabarriko berriak
MALLABIAN ZER? .....8-9 Aitor Elordi txapeldun	IRITZIA .....18 Demokrazia
ERREPORTAJEA .....10-11 Matilde Isasi-lsasmendi, komadronia	BOTEPRONTOAN .....19 Juan Luis Totorika
MOTZEAN .....12-13 Erakusleioak apaintzeko deia	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
ERMUAN ZER? .....14 Rosi Navarro, okina	ZORION-AGURRAK .....21 Saldu, erosi edo agurtu
KIROLZALE.....15 Oier, Danel eta Julen surflariak	OTSAILEKO AGENDA ...22

**Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:**



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

## Ricardo Combi

Buenos Airesekoa da jatorriz, eta han hasi zen aktore bezala formatzen. Harrezkero handik hona ibili da, eta hamaika herrialde ezagutu ditu bere lanari esker. Liman bizi den arren, Ermua ere izan zen bere ibilbidearen parte.

### - *Duela zenbat denbora etorri zinen Ermura?*

90eko hamarkadan heldu nintzen, Cadizen egiten den Iberoamerikako Antzerki Jaialdian gonbidatu gisa parte hartu ostean, Izaskun Asuarekin. Hura ere aktorea da eta Geroa antzerki taldeko kidea, garai hartako talde adierazgarrietako bat.

### - *Zer oroitzapen duzu?*

Gogoan dut herriaz izan nuen lehen inpresioa: giroan nabari zen energia sumatu nuen, hein handi batean, herriari bizi zen gazte-jende askorengandik eta orduan zeuden kolektibo ugariaren adierazpen kulturala zabaltzeko gogoak eragindakoa.

### - *Zer ibilbide izan zenuen herrian?*

Ermuan egin nuen lehen jarduera Geroak antolatutako antzerki-tailer bat izan zen, eta bertatik abiatu zen Ermuko Udal Antzerki Tailer

rra (EUAT) sortzeko ideia. Ongarai eskolako aretoa erabili genuen lehen espazio moduan antzezle formakuntzarako dinamikak egiteko. Ateneoan estreinatzen genituen antzezlanak, eta publikoak oso harrera ona egin ziren. Garai hartan, Izarraitz taldea sortu zen, Emakumearen Sailak lagunduta; 25 urtez egon zen martxan, eta hasierako mistika berari eutsi zion.

### - *Ermuan egon eta gero, zer herrialde ezagutu dituzu?*

Italiara joateko gonbidapena egin zidaten, eta Ermuko udal agintariek proposatutako ekimen batekin ados ez nengoenez, joan egin nintzen. Hamar urte baino gehiago eman nituen Italian, ikuskizunaren hainbat alderditan lan egiten; Milanen nire bizitzako gauzarik garrantzitsuen gertatu zitzaizkidan:


nire alaba jaio zen. Hiru urtera, nostalgiak baldintzatu-ta, itzultzea erabaki genuen, eta Durangon finkatu genuen bizilekua. Ermuan nengoenean EUATEko kideekin batera Papa Producciones sortu zen, eta Durangon antolakuntza eguneratu egin zen antzerki eta pedagogia proposamen berriekin. Horren ostean krisi ekonomikoak aurrekontu murrizketak eragin zituen, eta ondorioz, Perura joan nintzen. Europara joan aurretik bertan urte batzuk eman nituen jarduera artistiko garrantzitsua aurrera eramaten, eta urrundun nintzeneko errealitatea berriro ezagutzeko bidaia izan zen. Limak oso harrera ona egin zidan: lagun eta lankideekin

izandako topaketa zirrarragarria izan zen. Orduetik hainbat antzerkitan parte hartzeko proposamenak izan ditut, eta horregatik orain arte Perun nago.

### - *Ermura bueltatuko zarela uste duzu?*

Badakit itzuliko naizela, ez dakit zein baldintzatan ezta zenbat denborarako. Baina ziur naiz kuadrilla eta poteoaren parte izango naizela berriro, baita uztailearen 24ko txupinazoak pizten duen alaitasun eta itxaropenaren parte ere. Askok eta sakonak dira Ermuarekin lotzen nauten afektuak. Herria eta bere jendea betiko biziko dira nigan, sentsazio eta oroitzapen eder eta biziak emanez.

Libe Solozabal



**SAN ANTONIO**

OKINDEGIA  
GOZOTEGIA

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

**AIZ**

**AIZ**  
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**AMAIA HARATEGIA**

**Bertoko Okelak**

Probaleku 5  
Tfnoa. 943 17 05 84  
**Ermua**

**IKASTOLA**  
1968tik Ermua euskalduntzen

# erreportajea



## Koronabirusa eta lan mundua, neurrigabeko zehar kalteak

COVID-19ak hankaz gora jarri du osasungintza, zalantzarik gabe; baina gaixotasun horrek lan munduan eragin eta eragingo dituen ondorioak ere ez dira nolanhikoak. LAB sindikatuko Durangaldeko Industriako arduraduna den Jabi Gomezek eta ELA sindikatuko kidea den Mikel Malbadik lehen eskuko informazioa dute, eta agerian jarri dute interes ekonomikoak lehenesten dituen sistema ekonomikoa eta politikoa. Halaber, ermuar hauek ahotan hartu dituzte Abeletxe Egoitzako egoera, krisialdia, erabaki politikoak eta telelana, besteak beste.

**L**ABeko Jabi Gomezek eta ELAko Mikel Malbadik egungo egoeraz egindako analisisian hiru protagonista nabarmentzen dira: langileak, agintariak eta enpresak; eta bi ordezkariak bat datoz koronabirusaren eraginaz iritzia ematerakoan: haren eragina oso latza izan da lan munduan, eta etorkizunean ere langileek haien ondorioak pairatuko dituzte. “Lanpostuak suntsitu dira, lan baldintzak kaskartu eta toki askotan interes ekonomikoak langileen osasunaren gainetik jarri dira”, esan du Gomezek. Haren ustez, aurretik oso prekarioak ziren sektoreak izan dira kaltetuenak (ostalaritza, jangelak...), eta azpimarratu du ostalaritzako langileen egoera. Izan ere “askok kontratu barik edo kontratu partzialekin jarduten dute”, eta horrek ekarri die langabeziarako eskubiderik ez izatea edo langabezia saria oso txikia izatea.

Malbadiren ustez krisiaren sektore guztiak kolpatu ditu, baina bereziki zaurgarrienak: langile prekarioen kaleratzeak ekarri ditu, migratzaileen kontrako erasoak eta era guztietako indarkeria, eta emakumeen kontrako biolentzia areagotu du. ELAko kidearen arabera, gainera, pandemiak eragin izan du aurretik zalantzan zegoen sistema baten krisian sakontzea. “Gaur are argiago ikusi dugu zein arlo diren ezinbestekoak gure bizimoduaren biziraupenerako: zaintza, osasuna, garbiketa, elikadura... Jendarteak behar beharrezkoak dituen sektore horiek, pan-

demiari aurre egin dioten horiek, prekarioak eta feminizatuak dira —azaldu du—, baina hala da erabaki politiko baten ondorioz”.

Eta gauzek ez dute hobera egingo. “Horrelako egoerak baliatzen dituzte beti batzuk eurena inposatzeko, kasu honetan soldata jaitsierak, malgutasuna handitzea eta eskubide kolektiboen murrizketa”, argitu du Malbadik. Eta Gomezek gehitu du pandemian zehar egondako eskubide galerak betikotzeko aprobetxatuko dela, lan-esparruan zein alor sozialean eta politikoan.

### Erabaki politikoak

Politikaren ildo beretik jarraituta, ez dago dudarik egoera berri hau kudeatzeko, erabakiak hartzea ezinbestekoa izan dela, baina egokiak izan dira politikariek hartutako neurri horiek? “Argi dago ezetz —dio Gomezek—. Eta egokiak ez izateaz gain, berandu hartu dira”. Bere ustez, pandemia hasi zenean, ez zegoen baliabiderik, baina urtebete igaro ondoren, agintariek hartzen dituzten neurri bakarrak, neurri murriztaileak dira. “Ez dituzte hartu benetako eta beharrezko neurriak osasungintzan, nagusien egoitzetan eta babes sozialaren esparruan”, eta zerbitzu publikoak indartu eta pribatizatuta daudenak publikatzearen beharra nabarmentzen dute LABen.

Malbadiren ustez, pandemiari aurre egiteko estrategia “premia” aldatu behar da. Salatzen du ulertezina dela erabaki politikorik hartu



ez izana osasun sistema publikoa eta zaintza sarea sendotzeko (zahar-etxeak, eguneko zentroak, etxek etxeko laguntza...). “Sektorearen inbertsioa handitu beharrean, kontrakoa ari gara ikusten: zerbitzuaren gainbehera eta lantaldearen akidura emozionala”, damutzen da. Sindikatuek badaukate zer esana, eta ekarpenak egiten dizkiete politikariei, baina Malbadik azaldu duenez, Eusko Jaurlaritzak ez ditu sindikatuen ekarpenak entzuten eta kontuan hartzen. “Uste dugu gauzak hobeto egin liratekeela, eta hobekuntza proposamen ugari egin ditugu martxotik —aitortu du—, baina Eusko Jaurlaritzak nahiago izan du beste batzuekin akordioak egitea, eduki eskaseko akordioak gainera”.

LABen arabera, instituzioek patronalaren interesak babestea lehenetsi dute, langileen egoera kontuan hartu barik, eta salatzen dute azken lan-erreformei esker, “enpresek bete beharreko prozedura betetzen badute eta eskatzen den dokumentazioa aurkeztu, automatikoki jasotzen dutela baimena bai kontratuak eteteko bai kaleratzeak egiteko”, sindikatuei epaitegien bidea ba-

karrik utziz.

Pandemia honen kudeaketan enpresariak ere zeresan handia izan dute, eta aukeratu behar izan dute zer lehenetsi: irabaziak edo osasuna. Malbadik dionez, enpresek eta gobernuek lehentasuna eman diete interes ekonomikoari langileen osasunaren gainetik, eta gogorarazi du itxialdiaren lehen egunetan, industria eta eraikuntza bezalako sektoreetan, jarduerari eusten saiatu zirela. Gainera, enpresa askotan langileek jarduera gelditu zuten babes-neurriak hartu ziren arte, eta badira inolako segurtasun-neurririk gabe laneira joan behar izan zuten merkataritzako edo garbiketako langileak ere, etxeko materialarekin euren burua babestu behar izan zutenak. “Osasuna ala ekonomia eztabaida faltsua da —esan du—, ez dago osasunik gabeko ekonomiarik”.

Gomez ere ados dago, eta jakinarazi du euren delegatuek lan handia egin dutela protokoloak martxan jarri eta betetzeko, baina “zoritxarrez” kasu askotan interes ekonomikoak ipini direla langileen osasunaren gainetik, eta administrazioak, Osalaren zein prebentzio zerbi-



**Caperos**

Pinboak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak  
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

**OSASUNA • ESTETIKA  
EDERTASUNA**

*Marfil*

*Ile-apaindegi bat  
baino gehiago!!*

Egokitutako burua  
garbitzeko konketa

943 17 28 09 · Goienkale 12

tzuen eskutik, askotan beste aldera begiratu duela.

### Etzetik lanean

Hirugarren hanka langileak dira. Pandemia hasi zenetik, langile askok telelana egiteko proposamena jaso dute; beste batzuk, proposamena baino, agindua. Eta ELAko ordezkariak dienez, telelana borondatezkoa eta arautua izan behar da: "Inposatua eta araurik gabekoa bada, erabat aurka gaude". Gehitu du telelana baldintza egokietan egin behar dela, baliabideei, zein lanaldiari, formazioari edo garapen profesionalerako bermeei dago-kienez. "Ezin da telelana erabili prekarizazioa eta indibidualizazioa areagotzeko, eta batzuk horretan dabil-tza", argitu du. Izan ere, azken hilabeteotan telelana "saldu" dutela dio Gomezek, "ia neurri iraultzaile eta bi-

kaina izango balitz bezala: lanerako malgutasun handi-  
goa, joan-etorrien murrizke-  
ta, lanaren eta familia bizi-  
tzaren bateragarritasuna...".  
baina horrek alde onak eta  
alde txarrak ditu, eta negati-  
boen artean aipatu daitezke  
langileen bakardadea, lan  
zentrotik deserrotzea, lan  
zentro euskaldunetan hiz-  
kuntza ohiturak galtzea edo  
ta indibidualizazioa. "Telelana  
baldintza kaskarretan ga-  
ratu da, eta konfinamenduan  
telelana egin dutenen %40k  
baino gehiagok estres handia  
sentitu dute. Neurri errealak  
hartzten ez badira, telelana  
kapitalaren aukera-ofentsiba  
bihurtu daiteke langileen  
kontura kostuetan aurrezteko,  
haien baldintzak ahul-  
duz, batez ere emakumeek-  
nak. Hau da, prekarietatea  
hedatzen jarraitzeko baliabi-  
de moduan erabiltzea".

Dorleta Vidal



## ABELETXE EGOITZAREN EGOERA

Malbadiren ustez, egoitzen egoera oro har jasanezina da, eta zaintza-ereduak eragin du egoera hori. "COVID-19a azken tanta baino ez da izan prekarietateaz eta miseriak betetako edalontzi batean", esan du. Haren ustez, pandemiak agerian utzi ditu enpresek dirua irabazteko diseinatutako sektore baten egiturazko arazo guztiak, beharrak dituztenak modu duinean zaintzeko, eta baita langileak zaintzeko ere.

LABeko kidea bat dator ELAkoarekin, eta uste du COVID-19aren aurretik ere egoera oso txarra zela, baina koronabirusarekin are ageriago geratu dela, eta bertako langileen eskubideak zapaldu direla, langile eta baliabide falta egon den heinean. "Badakigu azpikontratazioek zer nahi duten: diru-irabaziak, eta horrelako zerbitzu batek ezin ditu irabaziak izan —adierazi du Gomezek—. Gure nagusien ongizatea izan beharko litzateke helburu bakarra, eta horretarako zerbitzua publikoa izan beharko litzateke. Kalitatezkoa eta doakoa".

Malbadiren esanetan,



egungo ereduie esker putre funtsak daude zentroak kudeatzen, eta langileen prekarietatean, haien osasunean eta baliabide ezean oinarritzen dute negozioa, horrela "erabiltzaile asko isolamendu egoera ankerrean daude martxoaz geroztik". Horrekin lotuta, LABek aitortu du Abeletxeko senideen borroka euren borroka ere badela, eta haiek babes-ten dituzte Vitalitasi eta Al-dundiarri gertatutakoa argitzeko eskaeran. Zentzu horretan, beharrezkotzat jotzen du borroka kolektiboa kalitatezko zaintza jasotzeko eskubidea lortzeko. ELAk, bestalde, azaroan deitutako greban, sektorea publikatu eta 10.000 lanpostu sortzeko beharra aldarrikatu zuen, eta sindikatu biek greba eta elkarretaratzea deitu zuten urtarrilaren 26an.

**FUB** Mediku psikiatra  
Psikoterapia psikoanalitiko  
Psikosomatika

**Fernando Urizar Barandiaran**

Ego gain, 18-1A. EIBAR. Tel: 615 71 54 04  
Bailen kalea, 9-1 ezk. BILBO. Tel: 94 416 49 06  
furizar1@yahoo.com

ARKITEKTURA ESTUDIOA  
BERRITZE LANAK ZURE ERAIKINEAN  
Ez dakizu nondik hasi?  
GURE LANTALDE TEKNIKOAK  
LAGUNDUKO DIZU

**SPARA** ARKITEKTURA

ZUK ERABAKI [www.spara.es](http://www.spara.es)  
[info@spara.es](mailto:info@spara.es)

Probaleku, 4 Bis, Bajo 48260 Ermua - Bizkaia 943 17 70 57

**ZK**

**ZUZENBIDE KONTUAK**  
Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina  
Tel: 846080080  
Mugikorra: 688885435  
[zuzenbidekontuak@gmail.com](mailto:zuzenbidekontuak@gmail.com)

**CAPRI**  
PIZZERIA  
943 03 33 15

**RIF**

ITURGINTZA KONPONKETAK  
Marques de Valdespina 16  
ERMUA  
605 71 10 81 / 688 71 27 10

Aitor Elordi, pilotaria:

# "Orain da nire momentua eta aprobetxatu beharra daukat"

Jaiotzez berritxuarra da, baina Mallabian bizi da txikitatik. 24 urte ditu. Abenduaren 26an, bigarren mailako lau eta erdiko esku pilota finala irabazi zuen Tolosako Beotibar pilotalekuan. Zenbait aste lehenago, ostera, buruz buruko finalean ez zuen zorte bera izan.

- *Iaz binakakoan irabazi zenuen txapela. Aurten lau eta erdikoan. Ze zapora laga dizu?*

Buruz buruko finala galdu berritik nentorren, eta egia esan, oso pozik nago egindako partiduagatik eta txapelegatik.

- *4 urte pasa berri dira debutatu zenuenetik...*

Orokorrean balorazio ona egiten dut. Umea nintzela debutatu nuen, afizionatu mailan gutxi jokatuta, eta horrek aurreneko 2 urteetan asko eragin zidan. Asko sufritu nuen. Egin gabeko pilotaria nintzen eta ahulezia puntu dezente nituen. Kolpeekin gogortzen ikasi dut.

- *Bidean lagun asko geratu dira?*

Konpetentzia oso handia da. Lehenengo urteetan nik ere ikusten nuen kili-kolo nembilela. Jarraitu nahi duzu, irabazi nahi... baina enpresak emandako aukerak aprobetxatu ezean, kalera zeko arriskua somatzen duzu. Zortea izan nuen egoerari buelta emateko, eta apur-

ka-apurka gorantz noala ikusten dut.

- *Jose txo Areitio eta Jokin Etxaniz aipatu zenituen txapelaren eskaintzan...*

Mallabiko eskolatik lurretako eskolara joan nintzen. Jose txo Areitioekin alderdi fisikoa landu nuen debutatu bitartean eta gero ere. Azkenaldian, Gontzal Urionabarrenetxearekin nabil eta azken 2 urteotan garapen handia izan dut berari esker. Jokin Etxanizekin alderdi teknikoa lantzen dut. Handia da!

- *Nola banatzen da zure astea?*

Astelehenean alderdi fisikoa lantzen dut, asteartean entrenamendua Jokinekin, asteazkena errekupeazio eguna da eta ostegunean pilotan egiten dut eskuak pixka bat egiteko. Asteburuan partidu egunaren arabera, aktibazio egun bat ere edukitzen dut tartean.

- *Lan asko dago atzetik...*

Pilotari guztiak topera prestatuta daude eta lehia oso altua da. Gora egiteko



Argazkia: Ignacio Pérez.

daukazu era bakarra, topera entrenatzea da. Buru-belari horretara. Kantxan behar nabaritzen da.

- *Ikasketarik baduzu?*

Goi mailako 2 modulu eginak ditut. Iaz Ingeniaritza ikasten hasi nintzen, baina ezin nuen pilotarekin uztartu. Zerbaitetan hartzen badut konpromisoa, %100 eskaintzen diot. 2 urteko kontratua neukan eta pilotaren bidea hartzea erabaki nuen. Pozik nago, ez naiz damutzen. Orainxe da pilotaren momentua, nire momentua.

Hemendik 10 urtera ez dut izango aukera hau, eta aprobetxatu nahi dut.

- *Ez dira erabaki errazak 20 urterekin hartzeko...*

Ikasketak oso garrantzitsuak dira etorkizunean lanen bat izateko, baina zaila da kirolarekin oreka puntua bilatzea. Gaztea naiz, eta gero ere izango dut zeozer ikasteko tartea.

- *Etxekoek nola bizi izan dute hau guztia?*

Beti daude hor laguntzeko. Gozatu eta are gehiago sufritu egiten dute. Pozik ni-

HARATEGIA - URDAITEGIA  
**MIGUEL**  
 2012ko BILBOKO  
 TXORIZO TXAPELEKETA  
 BIZKAIKO  
 TXAPELDUNAK  
 PROBLEKU 3-943170563  
 ERMUA

Drogetenituri, 296 zk.

**OINAK**  
**LEIRE MAYORA**  
**PODOLOGOA**

Erdikokale 1, 1. A  
 48260 Ermua  
 © 943 17 47 44



re debutarekin, baina gero egunerokoa dator, txakalaldia, aurreneko urte zailak, sufritzen... Dena ez da horren polita. Egoerei buelta ematean, gauzak gehiago baloratzen ditugu, halako txapelak eta pozaldiak, adibidez.

**- Martxoan COVID-19a etorri zen...**

Denak etxera, frontoiak hutsik... Hau gertatu baino lehen, pilota egoera onean zegoen; ez zen aurreko urte- etako egoera, baina ez zegoen hain txarto. Martxokoa eta gero ikusi dugu zer den benetan txarto egotea. Pentsaezina zen hau gertatzea, eta oso gogor eragin digu. Dena den, egoera guztietatik ateratzen saiatu behar da, eta tamalez gizartearen badaude beste sektore batzuk gu baino okerrago daudenak ere.

**- Frontoi hutsean nola motibatzen zara?**

Sentsazioa eskasa da. Hasieran ikusle gutxiagorekin hasi ginen, baina ikuslerik gabe zaila da. Halere, guk gure lana berdin-berdin egin behar dugu, motibatu eta ekin.

**- Binakako txapelketan hasi zarete oraintxe...**

laz txapeldun, aurten Beñat Garmendiarekin. Sentsazio oso onekin nabil. Txapelketa luzea da, 14 partidu dira eta erregulartasuna eskatzen du.

**- Gora egiteko pausoa zaila ikusten duzu?**


Jakitun naiz gure enpresan zein egoeratan gauden. Oso maila altuko plantilla dugu. Aurrelari zein atzelari onak eta oso gazteak. Gu behetik gora gatoz, enpresak aukerak ematen dizkigu batzuetan, eta horiek aprobetxatu behar dira. Denda den, horrekin ezin naiz itsutu. Ahalegindu, eguneroko lanean segi, eta nire onena eman behar dut.

**- Erosten bikoteka, bana-ka...**

Oin arte bikoteka. Urte osoan hori da gehien jokatzen dena, baina konturatuta naiz saltoa emateko bestetan ere aritu beharra daukadala. Banaka eta lau eta erdian ere, gai ikusten naiz aurrera heltzeko.

**- Zer gustatzen zaizu pilotatik aparte?**

Betidanik izan naiz oso kontrolzalea. Azkenaldian, Berritxuko baserrian ematen dut denbora. Baserri mundua gustuko dut.



Argazkia: Julen Uribe.

**- Frontoirik onena?**

Iruñako Labrit ikaragarria da: sartu eta sortzen dizun inpresioa... Bertako giroa ere oso berezia, oso hurbi- lekoa eta pilotazalea.

**- Jateko gustukoena?**

Ez naiz larregi zaintzen, oso garbi jan dugu beti. Pisu- era ere ez dut erraz hartzen.

**- Partidu txar bat nola ahaztu?**

Ez da erraza izaten. Bere prozesua izaten du. Hortik ere asko ikasten da.

**- Omenaldia jaso zenuen Mallabian urtarrilaren 3an.**

Asko daukat eskertzeko Mallabiko herriari eta Udalari. Bikotekako txapelaren ostean ere aukera polita eskaini zidaten. Herriak bere

erara eskertzen dit eta oso pozik nago.

**- Pilotari bat aipatzeko- tan...**

Umetan Aimar Olaizola, profesionaletan Abel Barriola. Bere izateko era berezia da.

**- Hasiberri bati zer gomendio emango zenio- ke?**

Helburua beti da profesio- nala izatea, hori da ametsa. Gero konturatzen zara ederra dela, baina alde onak eta txarrak dituela honek ere. Helburu bat lortze- an, beste bat daukazu zain. Momentua aprobetxatzeko esango nioke, egunerokoaz gozatzeko, eta lana eginez gero, helburuak lortzen di- rela.

Asier Ibaibarriaga



Matilde Isasi-Isasmendi, komadronia:

# “Umia jaioxotzen ikustia zoragarria da!”

**2020a, erizain eta emaginen Nazioarteko urtia atzian laga dogunian, lanbide horren testigantzak orrixotara ekarri nahi izan doguz urte luzez horretan jardundako andrazkuen bitxartez.**

**K**omadrona, matrona, sortzain, andra maestra, emagin, parteria... Izen ugari zeregin berantzako: umiei munduratzeko laguntzia. Matilde Isasi-Isasmendi Gallas-tegik estima haundixan daka bere ofizua eta pribilegiatu bat sentitzen da hain gustuko dakan eta hainbeste poztasun emon dotsan biharra eukitzegaitzik.

Manuel eta Mercedes ermuarren alaba, 1933ko uzta-



Matilde Isasi-Isasmendi, Basurtoko ospitxalian

laren 7xan lurretako Malla-biena auzuan jaixo zan, aitxa Oromiño auzoko mendiko guarda izanik hantxe bizi zalako famelixia. 7 anai-arreba jaixo eta 3 ahizta geratuko ziran: Irene, Amaia eta bixen tarteko dan Matilde. Gerran La Arboledako basarri baten egon ziran ezkutauta eta amaitxutakuan Kastrexanan taberna bat ipiñi zebe; Matildek 11 urte zitxuala, Ermura bueltau ziran, San Pe-laixora. Bizpahiru urtera Zubiaurreko Ezkerraneko tabernia hartu zebe eta haren gaiñeko etxian biziko ziran, Matildereren kasuan ezkondu arte. Ardua naruzko zara-gixetatik botiletara pasau, garbitxu basu eta mostradore, bezeruak atendidu, bazkari eta afarixak zerbidu... libre zekanian tabernan laguntzen zebe eta jaixetan asko.

## Plazia Ermuan

Batxillerra eitxeko egunero Durangoraino juaten zan, trenez. Eritzten zotsalako titulurik ez dala bihar “txiki-txiki etaratzeko tabernako



mostradorian”, Manuelek begi onez ikusi zebe alabiak Batxillerra amaitxu ostian ikasketekin jarraitzia. Gastetzen Magisteritza ein zebe, baiña praktikaldian konturatu zan ez zala bere gustuko lanbidia eta, barriro etxekuen babes estimagarri-xakin, komadrona eitxiari ekin zotsan. Bilbon ikasketak, Basurtoko ospitxalian praktikak eta Valladoliden azterketia. Bere lehelengo plazia Berrizkua izan zan eta Ermukua gero. Lehelengo partua 1953an asistidu zebe eta denporatxua ein zebe Berrizen, harik eta Ermuko plazia gertatu zan arte, ze ondiñok herrixak ez zitxuan erizain eta matrona plazia euki ahal izateko bihar zitxuan 2.000 biztanliak. San Inazioko anbulatorixuan izan aurretik, bere kontsultia ta-

berna gaiñian zekan. “Gela baten, kurtiña bat separatzeke eta ohe estu bat, jendia etzuteke. Hantxe ipintzen nitxuzan injekziñuak”, gogoratzen dau. Sarritxan etxietara juan bihar izaten zan jostorratzok hartuta, ze zortzi ordutik zortzi ordura jarri bihar ziran; akorduan daka zelan juanda dauan “gabeko 12xetan Sallabenterra injekziño bat ipintzera eta bidian ez etxerik ez argirik ez ezer!”. 1970ra arte egon zan Ermuan, Eibarrera leku-aldatzia eskatu zebe arte; handik aurrera erizain lanak eingo zitxuan, partuak lagata, Gizarte Segurantzza hasita zeualako betebihar horretan.

Ermua, Mallabia, Eibar, Zaldibar eta Berrizko umei lagundu die munduratzeko Matildek eta kuriosoa bada be, naturalki eta inoren esku-

## MARIA FELISA CENARRUZABEITIA GORROCHATEGUI

2021eko urtarrilaren 14an

**EUSKAL BIRUSA EUSKARA ELKARTEA**



hartze barik gertatzen diran partuak dira bere ustez one-nak: “Beti harritsu izan nau gure premina barik jaixotzen diran umiak haretzek izaten dirala parturik on eta errezenak, guk zenbat eta gitxiago interbenidu, mesederako!”. Mediku barik juaten zan eta bere ardurapian zeuan hasi eta amaitxu artekoa. Laster konturatu zan baserrixetako partuak kalekuekin alderatu “abentura bat” izaten zirala. “Herrixan bizi zan emakumia ezagutzen neban, jarraipena eitzen notsan... baiña baserrixik bila etortzen ziran partua agertzen zan momentuan eta ez zekizun umia zelan zertorren. Juan bertara, begitxu zelan doian gauzia, jaixotzeko presentaziño onakin datorrela frogatu eta hantxe geratzen nintzan, umia jaixo arte, igual egun osoz”, diño.

#### Orduko metodoak

Gaur eguneko erditu aurreko kontrolekin alderatu, ordukoak ekartzen doskuz Ma-

tildek akordura: “Ez zeuan ez ekografiarik ez ezebez, baiña hillian behin odol kontrolak eitzen ziran, baitxa tentsiñua hartu, umiaren tonua, hau da, bihotz taupadak entzuten ahalegindu, jateko aholkuak emon...”. Umia trabesera etortzen bazan eta bertikalera pasau eragitzeko erabiltzen zebeu metoduan efektibotasuna zalantzan ipiñiz, barre eitzen dau: kanpotik umia zuzendu ostian, mantentzeko eskupaiñu bana ipiñi amaren tripiaren albo bakoitzian eta izara batekin buelta-bueltan lotu harek gorputzera, umiaren trabeserako joera zuzentzen laguntzeko asmoz. Bilboko maternaduan ikusi zeban teknika hori eta baitxa behin, esturasun haundiko unian, eixia tokau jakona: ama ein barri baten odol-jariua mozteko, alutik toaila oso-oso bat sartzia eta, ginekologuaren oneritziakin, 3 egunez bertan eukitzia, harik eta odola gatzatu eta botatziari laga zotsan arte.



Lambretta bat erosi zeban baserrixetara juan ahal izateko.

Gabaz dei asko jasotzen zixuan Matildek: “Emakumiak arduratu eitzen zian gabaz, ze pasauko ete zan bildurrez, deitxu eta eurenian emoten neban gaba. Umia baiña ez zan beti gabaz jaixotzen, deitzen zostien miñekin eta dilataziñuakin hasten ziranian; parto bati begira egun bi emonda nago, ze tokau ezkerro Mallabiko basarri baten, hantxe geratu bihar. Hasieran oinez eitzen neban, baiña gero Lambretta bat erosi neban”.

Haurdunaldixak planifikatzen ez ziren sasoiari, Matil-


deren berbetan “martxa atrasa eta metodo oginoa erabiltzen ziran famelixia kontrolatzeko. Ez ziran totaliko efikazak, ze espermatozoidiak bizkorrak izaten dira eta atzera ein arren be einda eken sarritxan bidia, baiña horretxek sistemok erabiltzen genduzan danok”.

Ezkerraneko Matilde. Ez dira baiña hamen bere ipoiñak amaitzen; hurrengo alian bere berben bitxartez, haurdunaldixa, partua eta haren ostekuen barri be eukiko dogu.

Estibalitz González

# FEREDU

## SOLUTIONS S.L.



- \* HEZETASUNAK
- \* ERREHABILITAZIOA
- \* INPERMEABILIZAZIOAK
- \* MANTENIMENDUAK
- \* IGOGAILUAK
- \* ERREFORMAK
- \* FATXADAK
- \* ITE
- \* TEILATUAK
- \* GARBIKETAK

[www.feredusolutions.com](http://www.feredusolutions.com)  
699 476 112 / 946 423 649 ERMUA

**OKERRAK ZUZENTZEN**

Abenduko aldizkarian, Ermuan zer? atalean (15. orrian), argitaratu zen Kepa Antxia dela Ermua BHIko zuzendaria, baina informazio hau ez da zuzena. Kepa Antxia bertako DBHko koordinatzailea eta Hizkuntza Normalizatzeko Projektuko arduraduna da.

**MINTZAPRAKTIKA TALDEETAN ONLINE PARTE HARTZEKO AUKERA DAGO**

Berbalaguneko arduradunek adierazi dutenez, haiek kudeatzen dituzten mintzapraktika taldeetan segurtasun neurri guztiak betetzen dituzte: espazio seguruak, talde txikiak... Gainera, online parte hartzeko aukera ere badagoela gogorazi dute. Ekimen honetan parte hartzea doakoa da, eta hainbat abantaila daude (tartean sariak eta deskontuak). Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko: emanizena.praktikatu.eus.

**DAPA kulturak dokumentala egin du Markos Gimeno Vesgaren omenez**

Badira bi urte Markos Gimeno Vesga hil zela, besteak beste, hitz-jokoan maitale eta palindromoetan jantzia zen artista polifazetikoak. Senideek eta lagunek haren ordenagailuan arakatu, eta gutxika bere lana errekupe-ratzen hasi ziren. Horri esker, zenbait artelan bitxiz gozatzeko aukera dago. Hainbat euskal sortzailerentzat inspi-razio-iturri izan da Markos eta haren lana, eta Dinamoa Sormen Guneak DAPA ikus-entzunezko dokumentala egin du ermuar honen oroimenez. Bertan, Lobianon egin zen "404 egun Markus barik" erakusketaren irudiak agertzen dira, eta baita bere etxean grabatutako bakarrizketak ere. Gertukoak agertzen dira Markosen inguruan hitz egiten eta, horien bitartez, haren historia ezagutzeko aukera du ikusleak. Interesa dutenek, DAParen webgunean edo YouTubean ikusi dezakete dokumentala. Era berean, Markosen ondarea abiapuntu hartuta, Mursego musikarak pieza bat sortu du, non hizkuntzaren esanahiari baino sonoritateari garrantzia ematen dion: hizkuntza tresna bezala hartu eta hitz jokoan bidez kantu bat sortu du, hitzekin esperimentatuz. Joseba Sarrionandiak ere egin dio bere omenaldia Markosi: argita-ratu berri duen *Gauzak direna balira* liburuan bi aldiz aipatzen ditu Markosen palin-dromoak.

**Kanpandorreko erlojua konpondu dute**

Kanpandorreko erlojua geldituta egon da denboraldi batez. Azken urteotan Gabonetako argiak izaten ditu dorreak apaingarri gisa bueltan-bueltan jarrita eta, haize zakarren baten eraginez, jausi eta erlojuaren orratzean geratu dira kateatuta aurten. Garabi luze bat kontra-tatu behar izan zuen Udalak bertaraino ailegatu eta egin beharreko konponketak bertan egin ahal izateko. Dan-dan! Berriro martxan!



**Plan B**  
Coffee Lounge      Gin & Beer

**Torrealday**  
ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA  
ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA      ERMUA

**CITROËN**  
**AUTOS AMEDI**  
Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.  
Telefona 943 17 04 14

**Ferreteria ANBOTO**  
Burdindegi  
Orain **KOTXEKO GILTZEN KOPIAK** ere egiten ditugu  
943 17 69 76      ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)  
607 33 11 77      www.ferreteriaanboto.es

**Desiak**  
PSIKOLOGIA  
ONGIZATE PERTSONALEKO ZENTROA  
Nahia Rojo Bustinduy  
Psikologoa eta Sexologoa  
Hitzorduak: 688 85 18 95

# Erakusleioak koko jantziekin apaintzeko gonbitea egin du Euskal Birusak



Koronabirusaren eraginez, Hartzak ezin izango ditu Ermuko kaleak zeharkatu aurten. Hala ere, Euskal Birusa Euskara Elkarteak aukera ezberdinak aztertzen ari da pandemia garaian ere ohitura honi ikusgarritasuna emateko. Proposamenetako bat herriko dendariei zuzenduta dago. Izan ere,

otsailaren 11tik 17ra saltokietako erakusleioak Hartzarekin eta koko jantziekin apaintzeko deialdia egin du Elkarteak, eta bere gain hartu du jantzi horiek dendetara eramateko eta jasotzeko ardura. Ekimen honetan parte hartu nahi dutenek telefonoz (688 63 28 74) edo emailez (euskalbirusa@gmail.com) jakinarazi beharko dute. Ospakizun honekin lotuta, gainera, hainbat hitzaldi eskainiko dira herriko ikastetxeetan. Halaber, neguko festen eta ospakizunen inguruko emanaldia eskainiko du Oier Araolazak otsailaren 16an (asteartea), 18:30ean, Lobianon, "Koko janztea ez da disfratzea" izenburupean.

## EUSKARAREN GINKANAN IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK DAGO

Kutxa Ekoguneak antolatuta, Euskararen Ginkanaren 7. edizioa burutuko da aurten. 16 urtetik gorako 4-6 lagunez osatutako taldeek eman dezakete izena, eta hainbat proba egin eta gero, 3.000€ko saria irabazteko aukera izango dute parte-hartzaileek. Izena emateko azken eguna otsailaren 3a izango da, eta informazio gehiago eskuratzeko euskararenginkana.eus webgunera jo beharko da.

## ENPRESA TXIKIEI ETA AUTONOMOEI ZUZENDUTAKO AHOLKULARITZA-ZERBITZUA ESKAINTZEN DU DEBEGESAK

COVID-19aren eraginez zailtasun ekonomikoak dituzten autonomoei eta enpresa txikiei arreta pertsonalizatua eskainiko diete Debegesako teknikariek (egungo egoera aztertu, negozioaren diagnostia egin, etorkizuneko urratsak finkatu eta dirulaguntzen berri eman, besteak beste). Apirila baino lehen eskatu beharko da hitzordua (943 82 01 10 edo ekintzaile@debegesa.eus).

## EUSKAL BIRUSAK OTSAILEAN KOBRATUKO DITU URTEKO KUOTAK

Euskal Birusa Euskara Elkarteak otsailaren 15ean kobratuko die bazkideei aurtengo kuota. Aurretik gutuna edo mezu elektronikoa jasoko dute bazkideek, elkarteak aurten burutuko dituen ekimenen inguruko informazioarekin. Datu pertsonalen bat, edo kontu korrontearen zenbakia aldatu dutenek elkarteari jakinarazi beharko diote (688 63 28 74 telefonoan, euskalbirusa@gmail.com helbidean edo Euskal Birusaren bulegora gerturatuta: Erdikokale zeharbidea 2, 1. pisua).



## AURTENGO IRAKURRI, GOZATU ETA OPARITU EKIMENAK BADITU IRABAZLEAK

Euskal Birusak eta Topaguneak elkarlanean antolatzen duten Irakurri, Gozatu eta Oparitu ekimenean, liburuak zozketatu dira aurten parte-hartzaile guztien artean. Hauek izan dira Ermuko irabazleak: Gaizka Resa, Piedi Eizagirre, Jorge Rodríguez, Irati Rekalde, Martín Rodríguez, Izar Yarza, Ariana Arrarte eta Leire Peribáñez. Irabazleok laster jasoko dute eskatutako liburua, barruan eurek idatzitako mezua itsatsita.

**hanigan's**  
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik  
Asteburu eta jaiegunetan,  
10:00etatik.

Komentukua z/g - 943030527

**ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA**  
**PALACIOS SM**

ENPRESA INSTALATZAILA BAIMENDUA  
GREMIOEN KUDEAKETA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)  
info@palaciosfontaneria.com / www.palaciosfontaneria.com

**660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23**

Bitsi-denda Tailer propicia Erloju-denda

**Senén**  
1978

Diseinuak eta kalitateak  
bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA  
www.joyeriasenen.com · joyeriasenen@gmail.com

**enolimp**  
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel.: 94 659 01 41 - 618 89 29 60  
E-maila: info@enolimp.es  
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak  
Obra amaiera eta erreformak

[www.enolimp.es](http://www.enolimp.es)

**Horacio Decoración**  
VI Centenario 10 - Ermua  
943 03 15 80  
www.dghoraciodecoracion.com

TAPIZERIA - ALTZARIAK - OSAGARRIAK

Rosi Navarro, okina:

# “Ondo egindako ogia jaten ohitu behar gara berriro”

**Ogi artean hazi zen Rosi Navarro Zaragozan (bere aita eta aitita okinak izan ziren), eta duela 14 urte Ermura etorri zen. Ez zela labaria izango esaten zion bere buruari sarritan, baina gehigarriak gabeko ogia egiten harrapatzen dute egunsentiek azkenaldian.**

**- Zer dela-eta hasi zinen artisa-ogia egiten?**

Duela urte asko ogia hobetzeko produktu kimikoak erabiltzen hasi ziren okinak. Berehala ohitu ziren, haiei esker ogiak ondo irtetzen direlako beti. Kopuru txikiak izan arren, ogiari eransten zaizkion kimiko guztiak kentzen tematu naiz azken 6 hilabeteetan, Durangon dudan okindegian.

**- Jendeak zer daki kimiko horietaz?**

Orain arte ezer ez, inork ez duelako horiei buruz hitz egiten, baina okindegia ia gutzietan erabiltzen dituzte.

**- Zer osagai behar dira gehigarriak gabeko ogiak egiteko?**

Irina, ura eta denbora. Irinarekin eta urarekin ore

egin eta gero, hartidura prozesua hasten da, 20 eta 24 ordu bitartean iraungo duena. Hartidura kamera batean egiten da, temperatura kontrolatu ahal izateko: hotzetik hasi eta 12 edo 14 gradutara heldu arte. Temperatura kontrolatu ezean, ogiak zapore garratza izan dezake. Ore amarekin egiten dut dena, eta legamia apurtxo-apurtxo bat botatzen diot (gramo bat masa kilo bakoitzeko). Hartidura bukatutakoan, mahai gainean ipintzen dut ore, eskuz pisatu eta eskuz oratzen ditut ogiak. Harrizko labean egosten ditut gero.

**- Badute alderik zaporean?**

Bai, eta nire ustez kalitatezko ogia jaten ohitu behar da jendea berriro ere, ondo egindako produktuak balora-



tzen hasi. Tokiaren arabera zerbait da. Ermuan, esaterako, artisa-ogiak lehenesten dira, agian Galiziatik etorritako jende asko dagoelako, eta han ogi-kultura oso ona dute.

**- Zeintzuk erosten dute artisa-ogia?**

Nagusiak, batik bat. Gazteei probatzea gustatzen zaie, aldatzen joatea.

**- Gizarteak gero eta produktu naturalagoak eskatzen ditu?**

Bai, baina ezjakintasun handia dago. Jendeak ez daki non bilatu. Batzuk super-

merkatuan egindako ogirik naturalena hartzen dute, baina bertan saltzen den ogiaren ore (baserritarrek egindakoa kenduta), izoztuta heldzen da dendara. Ore izoztuta egon ahal izateko, kimikoren baten beharra du.

**- Duela urte batzuk oso modan jarri ziren supermerkatuetako ogiak...**

Bai, berehala jateko ogiak dira. Supermerkatuek amu bezala erabiltzen dute ogia, eta gehienetan harekin ez dute dirurik irabazten.

Dorleta Vidal

## Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN  
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08



**ORBE**  
TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa

- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak

Tailerra:  
Zearreko Buelta 2  
943 17 66 34 - 630 01 13 41  
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1  
48260 Ermua (Bizkaia)  
943 17 98 60  
persianasorbe@gmail.com



**ITZE**  
OPTIKA  
AUDIO

Entzumenaren doako azterketak  
Audifonoetan azkenengo teknologia

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51

## solozabal tabakoak

torrekua 1  
tel./fax: 943 17 07 33



Oier Araiztegi, Danel O'Callaghan eta Julen Olaya, surflariak:

# “Olatu gainean gaudenean dena ahazten zaigu”

Oier Araiztegi eta Danel O'Callaghan lehengusuak Debako hondartzan hasi ziren olatuekin gozaten, bospasei urterekin, *bodyboarda* eta surfa tartekatzen. Julen Olaya, aldiz, *bodyboarden* zebilen txikitatik, eta hilabete honetan ekin dio surfari. Pozik dabilta Debako, Zumaiako eta Lekeitioko olatuetan; baina are gusturago arituko lirateke Balin, Namibian eta Polinesia Frantsesean.

- Zer sentitzen duzue olatuaren gainean zaudetenean?

Sekulako sentsazioa da! Nahiz eta aurretik pentsatu zer egingo duzun, olatu gainean ematen dituzun 10 edo 20 segundo horietan dena ahazten zaizu! Momentuan irteten zaizuna egiten duzu.

- Surf egitera zoaztenean, zenbat denbora ematen duzue uretan?

Olatuen eta tenperatura-arabera, hiruzpalau ordu egon gaitezke. Orain 10-11 gradutara dago ura; udan, aldiz, 20 gradu inguru ditu eta, bainujantzi hutsarekin, 5 ordu egon gaitezke uretatik irten barik.

- Zein altuerako olatuetan ibiltzen zarete?

Danel: Bi edo bi eta erdi ingurukoetan. Nik gainera kontutan hartzen dut olatuak nola lehertzen diren; lasaiak gustatzen zaizkit, ez oso bortitzak.

- Teknika, indarra... zer behar da surfean ondo aritzeko?

Gogoa, sasoian egotea eta praktika.

- Zenbat eta itsaso zaka-rragoa, olatu hobek?

Oier: Ez dauka zertan horrela izan. Itsaslasterren eta olatuen tamainaren eta indarraren arabera izaten da. Batzuetan uretara heldu arte ez dago jakiterik.

- Kirol arriskutsua da?

Ez, norberaren mailarekin bat datozen olatuetan arituz gero, ez dago arriskurik.

- Beldurra sentitu izan duzue inoiz uretara sartzean?

Julen: Txikitan bai.

O.: Baina beldurra baino gehiago, inpresioa ematen du. Hasieran uretan trankil egoten ikasi behar da, eta olatu handiak datozenean ez estresatu.

D.: Itsasorekiko errespetua izan behar da beti, itsaso-



laster batek oso urrun eramaitzakeelako. Itsasoan beste surflaririk ez badago, nire amak ez digu lagatzen sartzen. Oierren ama eta nire a zoro batzuk dira!

- Surflari gehiegi daudenean ere ez da erraza izango...

O.: Udan ume asko egoten dira, eta olatu bat hartzerakoan haiek saihesten joan behar zara.

D.: Lehentasunak daude, olatua nondik datorren ikusita. Idatzi gabeko arau batzuk daude, eta gehienok errespetatzen ditugu; gure adineko batzuk salbuespenak izaten dira.

- Surfean aritzeko leku bat aukeratzekotan...

D.: Oierrek 18 urte betetzen dituenean, Balira joatea pentsatu dugu.

O.: Niri asko gustatzen

zait Skeleton Bayko olatua, Namibian.

J.: Gure inguruan, Munda-ka eta Hossegor, Frantzia.

- Zer berezitasun daukate aipatutako leku horietako olatuek?

D.: Mundakan ezkerreko olatua dago, Skeleton Bayn hodi perfektuak egiten dira... Bestalde, Nazaren (Portugalen) olatuak oso handiak dira, Perun olaturik luzeena dago...

J.: Nik Teahupoora joan nahiko nuke (Polinesia Frantsesera), baina oso arriskutsua da, behean korala dagoelako. Jende asko hil da.

- Aurrera begira, zer asmo duzue?

Surf egiten jarraitu nahi dugu, eta hobetu. Kotxea dugunean leku ezberdinetara joan ahal izango gara, eta olatu indartsuagoak hartu.

Dorleta Vidal



## URRETA

burdindenda

* Etxea	* Giltzak
* Tresneria	* Sarrailagintza
* Brikolajea	* Kit altzariak
* Ervailak	

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

# KRABI

Ileapaindegia  
Estetika



Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

# Manolo Álvarez, bizitza oso bat futbolari eskainia

Allarizen (Galizian) jaio zen, eta 5 urte zituela Ermura etorri. 79 urte beteko ditu. 5 seme-alaben aita. 50 urtetik gora eman ditu Ermuko futbol taldeak zuzentzen.

- **Noiz hurbildu zinen futbolaren mundura?**

Ume umetatik futbolean hasi nintzen lagunartean, eta inguruko herrietan ere jokatzeko aukera izan genuen.

- **Eta entrenatzaile gisa?**

Ermuko futbol taldeko presidentea Antonio Zubizarreta zen garaian. "Entrenatzen hasi beharra duzu" esan zidan, eta gazteen taldearekin hasi nintzen. Nire lehen semea, Imanol, jaiotzeko zegoen orduan. Lehen taldearekin 20 denboralditik gora eman nituen; Berrizen ere beste 2 urte.

- **Nolako entrenatzailea zinen?**

Zorrotza eta batzuen ustez, gogorregia. Batzuk ulertzen zuten, eta beste batzuek ez, baina partida ostean denak ziren nire semeak.

Dedikazioa eskatzen nien, ahal zuten guztia ematea.

- **Hiru aukera izan ziren 3. mailara igotzeko...**

Azkena daukat gogoan batik bat. Ni nintzen entrenatzailea, eta etxean jokatu behar genuen Zallaren aurka. Berdinketa nahikoa zen, baina Urtubi ekarri zuten eta galdu egin genuen. Kolpe latza izan zen!

- **Athleticekin harreman berezia izan duzu betidanik...**

Beti izan dugu harreman estua, eta lesioak sendatzen ere laguntzen ziguten. Manolo Delgado prestatzaile fisikoak ere laguntzen zigun.

- **Noiz utzi zenien entrenatzaile izateari?**

Prostatako minbizia izan nuen, eta aldi baterako laga behar izan nuen. Sendatu,



eta berriz deitu zidaten. Bi urte geroago, minbiziak erasotu ninduen berriz ere, eta betiko utzi behar izan nuen

- **Futbola egunerokoan jarraitzen duzu?**

Bai, Ermuko taldeak jarraitzen ditut. Ilobek ere jokatzen dute, baina berdin gozatzen dut nagusien taldeak edo kadete mailako partidak ikusten.

- **Telebistan?**

Ingalaterrako liga jarraitzen dut, jokoak daukan intentsitateagatik.

- **Entrenatzaile eredu bat?**

Ni Clementista izan naiz betidanik. Berarekin batera atera nuen entrenatzaile titulua. Ideiak garbi zituen, izaera gogorra, jokalariai asko motibatzen zituen... Gaur egun dauden artean, Josep Guardiola.

- **Gauzak gaizki doazenean entrenatzailea da beti erruduna?**

Entrenatzailearen eta jokalarien asmoek bat egin behar dute, eta entrenatzailearen sistema jokalariei lotuta joan behar da. Bateratasun hori ematen ez bada, ez dago emaitzarik.

- **Etxean denak kirolariak atera zaizkizu...**

Arrate emazteari asko daukat eskertzeko. Berak atera zuen etxea aurrera, ni beti kanpoan... Askok zor diot!

- **Imanol semea ere entrenatzailea da...**

Eskubaloia diziplina ezberdina den arren, berarengan ikusten dut nire burua islatuta. Nire antza dauka agintzerako orduan, lasaiagoa den arren.

- **Kalean jendeak agurtzen zaitu?**

Jende askok agurtzen nau, baina sarritan nik ez ditut beraien ezagutzen... Hainbeste jende pasa da nire esku artetik, guztiekin ezin gogoratu!

Asier Ibaibarriaga



Iberikoetan  
espezialistak

*Mayte*

VI Centenario 5 · ERMUA  
943 172 412



**PUB YOMY**

**Zubiaurre  
kalearen  
bihotzean**



# Eskolabarriko Euskara Batzordeak hainbat ekintza antolatu ditu

Ikasturte arraro honetan ekintzak aurrera eramatea zaila egiten den arren, Euskara Batzordeko kideak (irakasle, guraso eta ikasleak) ez dira kokildu eta, ahal izan duten neurrian, urtero proposatutako ekintzak modu batera edo bestera aurrera eramaten saiatu dira. Hori horrela izanda, nahiz eta San Martin Azoka bertan behera geratu zen, 5. eta 6. mailakoei bideo bat grabatzea proposatu zieten, eta "San Martin, taloa jan eta euskaraz eñ" leloa oinarri hartuta, eskolako familia guztiei etxean taloak egitea eta eskolara horien argazkiak bidaltzea proposatu zieten. Ekintzak arrakasta izugarria izan zuen, eta argazki mordoa jaso ziren, eskolako webgunean zintzilikatu zirenak.



San Martin azokako ekintzak bukatuta, Eskolabarrik Euskaraldian parte hartu zuen, Arigune bezala izena emanez. Familiei Euskaraldian parte hartzeko

gonbitea egin zitzaizen eta, horretaz gain, umeekin proposatutako abestiak eta unitate didaktikoak landu ziren, Euskaraldia zer zen ezagutarazteko.

Euskaraldiari bukaera emateko eta Euskararen Eguna ospatzeko, Euskara Batzordeak ekintza ugari proposatzen ditu abenduaren 3rako. Aurten ekintza horiek moldatu behar izan ziren arren, ez ginen atzean geratu eta primeran pasatu genuen.



Ermua Antzokian antolatzen den Eskolarteko Gala ezin zenez egin, eskolan ospatu genuen bideo dei bitartez, gela bakoitza Euskara Batzordeak antolatutako bilerara konektatuz. Bideo dei bitartez ospatutako jaialdi horretan Juanita Ibaibarriaga Literatur Lehiaketako sariak banatu ziren, eta aurten inoiz baino irabazle gehiago izan ditugu: 3. mailako Marta López, 4. mailako Itxaso Areitioaurtena, 5. mailako Asier Fernández eta 6. mailako Udane Fernández. Zorionak guztioi!

Sari banaketaren ondoren, umeez bingora jolastu zuten. Bingoko irabazlea 4. mailako Danel Gallego izan zen. Bukarantz euskal kantak abestuz karaokea egin genuen.

## Eskolabarriko gabon-postal lehiaketa

Lehen Hezkuntzako umeez gabon-postal lehiaketan parte hartu zuten, Eguberri zorientsuak opartzeko bidaliko zen postaleko marrazkia aukeratzeko lehiaketan, alegia. Gela bakoitzeko bat aukeratu zen eta horiek finalistak izan ziren. Ondoren, finalista horien artean irabazlea aukeratu zen. Irabazlea 3. mailako Telmo Fernández izan zen, eta finalistak 1. mailako Libe Ceballos,

2. mailako Luka Grande, 4. mailako Erik Álvarez, 5. mailako Arianne Campo eta 6. mailako Andrea Aguiar. Zorionak guztioi!



## Olentzeroren bisita Eskolabarrin

Zalantzak izan genituen arren, abenduaren 21ean, urtero lez, Olentzero bisitan etorri zen eskolara. Umeez ezin izan zuten kalez-kale abestu, ezta

Olentzero maiteari musu eman, baina talde bakoitzak ilusio handiz abestuz abesti bana, eta eskutitzak haren zakuan sartu.

**quetzal**  
 [arropa, bitxiak, opariak...]

Zubiaturre, 2 | 48260 ERMUA | 943170065  
[www.quetzalmoda.com](http://www.quetzalmoda.com)

ileapaindegia  
**Silvia**  
 peluquería

Asteartetik ostiralera  
 9:00-12:00 15:00-19:00  
 Larunbata  
 8:30-13:00

943 170474

688819336

# Demokrazia

**E**satzen digute demokrazian bizi garela. Baita Espainiako Erresuman ere.

Gaur egungo demokraziaren zutabeetako bat merkatuaren askatasuna da. Horregatik, banketxeak eta autopistak berrerosten dira, jendea kale gorrian hiltzen den bitartean; eta ura eta etxebizitza jada ez dira eskubideak, merkantziak bihurtu baitira. Bitartean, etxebizitzak eraikitzen dira eta jendeak kalean hiltzen jarraitzen du.

"Gure" demokrazian hildako bakarrak ETak eragiten zituenak dira. Badirudi indarkeria matxistak eta lan istripuek urtero eragiten dituzten biktimak, esate baterako, estatistikak baino ez direla. Gaur egungo demokrazian COVID-19ak hiltzen du jende gehiena, eta ez minbiziak.

Onargarria da existitzen ez den adituen talde batek gure etorkizuna antolatu ahal izatea. Eta ekono-

mikoki jasangarria da, langileok hilean mila euro kobratzen dugun bitartean —lana izatekotan—, hirugarren mailako alkate eta zinegotzi batzuek astero mila euro baino gehiago kobratzea.

Demokrazian, erregeak eta diputatuak bortxaezinak direnez, emakume eta neska guztiak bortxatu daitezke.

Euskal demokrazian, ikastetxe publikoetatik kanpo ikasten da euskara, ordaindu ondoren. Hori bai, diru-laguntza eska dakioke Udalari edo Aldundiari.

Gero eta zerga gehiago ordaintzen dugu, medikuak, erizainak edo irakasleak kontratu beharrean, polizia soldata igotzeko. Demokraziaren segurtasuna edozein txokotan kamerak jarrita lor daiteke.

Demokrazian bizi izango ez bagina, saihesbideak eraiki beharrean, kultur etxeak edo osasun zentroak eraikiko lituzkete. Demokraziaren mendietan, zuhaitzak eta anima-



*Óscar Gómez*

liak eduki beharrean, zabortegeiak dauzkagu.

Demokrazian alderdiek dena erabaki dezakete eta pertsonak, ostera, ezer ez. Argi eta garbi dago garrantzitsuena hauteskudeak direla, burujabetza ez baita herriarena.

Demokrazia hain anitza da, sozial komunistek gobernatu dezaketela. Gainera, subiranisten babesarekin. Elektrizitatearen prezioak gora egingen jarraitzen duen bitartean.

Demokraziaren baldintzak kontuan hartuta, artikulua sinatzen duenak esan dezake ez dela demokrazia. Demokraziari ustel usaina darriolako. Gaur egungo demokraziak gure mespretxu eta gaitzespena merezi dutelako.

“ Gaur egungo demokrazian, COVID-19ak hiltzen du jende gehiena, eta ez minbiziak ”

Komunitateak

## San Pelayo

Aholkularitza  
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

**SAGARDUI**  
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305

**ZERMIK**  
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA  
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS  
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

[www.zermik.com](http://www.zermik.com)  
Usaetxe plaza 6-8, behea  
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)  
Telf: 943 23 10 12

IZASKUN TXURRUKA

Goienkale 9 Bajo  
48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

[peluqueriazaskun@gmail.com](mailto:peluqueriazaskun@gmail.com)  
[peluqueriazaskun.wordpress.com](http://peluqueriazaskun.wordpress.com)

Zuri egokitzen den odontologia

La odontología que se adapta a tí

Dña. OLATZ GARCÍA ARREGUI Cof. nº 1264

- P.A.D.I
- IMQ
- SANITAS
- DENTYRED
- AZKARAN
- OCASO

943 17 04 04  
[info@clinciasanpelayo.com](mailto:info@clinciasanpelayo.com)  
San Pelayo Zeharkalea 5  
48260 Ermua (Bizkaia)

## ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,  
telebistak,  
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

# JUAN LUIS TOTORIKA

- *Nola gogoratzen duzu zure haurtzaroa?*

Baserrian behiak genituen, eta bertan egoten nintzen lanean eta esne-partitzen. Gero, aita gaixotu zenean, behiak saltzen joan nintzen.

- *Eta zer oroitzapen duzu gaztarotik?*

Soldadutza egin nuen Madrilen urtebetez, eta ederto ibili nintzen. Egungo gazte guztiak bidaliko nituzke soldadutzara, diziplina ikasteko.

- *Umetan zer izan nahi zenuen?*

Butano-banatzailera, kamioian ibiltzeko.

- *Ikasteko aukera izan zenuen?*

Ez, 12 edo 13 urterekin utzi nuen eskola. Ez zait inoiz ikastea gustatu, baina gaur egun eskolako lelook enpresak ditugu...

- *Zein izan zen zure lehen lana baserritik kanpo?*

Tailer batean urtebete egon nintzen. Ondoren, 2000. urtearen bueltan, basolanetan aritzen den Durangoko enpresa batean hasi nintzen lanean, Mallabiko alkate izan zen Jose Ramon Olalderen bitartez. Hiru urte eman nituen bertan, lan-esparru berean nire enpresa sortu nuen arte.

- *Zer ordutan hasten zara lanean?*

Ohetik jaikitzen naizenean! Goizean berandu ibiltzen gara, baina iluntzera arte egoten gara gero.

- *Pandemiak eraginik izan du zure lanean?*



**Mallabiko Boliña baserrian jaioa duela 51 urte. Bi arreba ditu, bera baino nagusiagoak. Eibarren bizi da duela lau urte. Urrian ospatu zuen bere ezkontzaren lehen urteurrena.**

Momentuz ez, baina etorriko da beherakada.

- *Non ezagutu zenuen emaztea?*

Bastida tabernan. Bertan egiten zuen lan, eta han konkistatu nuen duela 16 bat urte...

- *Zer egiten duzu aisialdian?*

Ez daukat atsedenk! Asteburuan amaren herrira edo kostaldera joaten gara noizean behin, baina normalean Mallabira gatoz, lagunak hemen ditut-eta! Gainera diru pixka bat utzi behar zaie herrikoei ere...

- *Kirolrik praktikatzen duzu?*

Ez, bihar egitekotan beti!

- *Telebistan...*

Telebista aurrean lokartu egiten naiz! Kirola, harri-jasotzaileak edo zerbait interesgarria badago, bai; baina afaldu eta gero, akabo! Lo seko gertzen naiz. Liburuekin gauza bera: logura ematen didate.

- *Irratia?*

Lanean nagoenean Arrate irratia jartzen dut, edo albisteak ematen dituzten irratiak. Nirekin datorren langileak, aldiz, bakalao estiloko musika jartzen du.

- *Bidaiazalea zara?*

Emazteak antolatzen ditu bidaiak. Kanariar uharteetan egon gara, eta ezkondu gine-nean Dubaira joan ginen.

- *Eguneko zure momentua?*

Bazkaria eta tabernaren batean armosua jatea.

- *Jatun ona zara?*

Bai, ez dago ezer txarrik! Agian, alkatxofak.

- *Trebea sukaldean?*

Saiatzen naiz. Lagunekin San Juaneko elkartera noanean, ni arduratzen naiz bildotsa erretzeaz.

- *Zer eskatzen diozu lagun bati?*

Ondo konpontzen naiz lagun artean, baina kontuz lagunekin! Batzuetan ez dakizu nortzuk diren benetakoak!

- *Zerk eragiten dizu barrea?*

Umore onekoa naiz, gutxitan harrapatuko nauzu haserre.

- *Badago zure onetik ateratzen zaituenik?*

Burlek, tontotzat hartzen nautenean. Dena den, ez naiz erraz burua berotzekoa.

- *Hartu duzun erabakirik zailena?*

Erabaki bat hartu behar dudanean ez dut zalantzarik izaten: zirt edo zart! Argi izaten dut.

- *Berriro jaioko bazina, egindako zerbait aldatuko zenuke?*

Berriro jaioko? Akabo ba! Mundua ere aldatuta egongo zen seguruenik... Tira, pozik nago egindakoarekin, ez dudalako bizitza oso serio hartzen.

Dorleta Vidal

**Proba-Leku**  
Heapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A  
Tel. 943 17 05 42

**SEHIGA**  
PROTECCIÓN LABORAL  
PLAN BABESERAKO  
ORNIDURA

Goienkale kalea (Ermua)  
Tel: 943 172 454  
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

**T** XALAPARTA  
ABERNA

Eta asteburuetan  
pintxoak, afariak  
eta bokatak!

Erdikokale 13  
(Ermua)

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

**ENKARGYAK**  
943 030 299

## MALLABIA 1993

Argazkian agertzen diren gizonek asto proban parte hartu zuten Gereako jaientan, 1993ko ekainaren 6an. Bi asto aritu ziren proban, eta lehena Amestiko astoa izan zen. Argazkian agertzen direnek ezin izan zuten proba bukatu, euria hasi zelako, baina bertan dagoen astoa Zalbibarko Baldominena zen. Patxi Aldapek, Martin Ibaibarriagak eta Julian Gerenabarrenak parte hartu zuten proban; Martin Arriaga eta Martin Longarte, aldiz, epaile aritu ziren.



## ERMUA 1971



Betiondoko baserri kontratan, bertako bizilagunak. Juan Astarloa, aitxitek, ezker-eskuma dauzka bere bi seme-alabak, suin-errein eta lobak; amama ere, Ageda Laka, hurbil zebilen. Argazkiaren ezkerrean Miren Astarloa eta Rodolfo Ugena euren lau seme-alabak aurrean dituztela: Miren Bego nagusia, Rodolfo, Jose Agustin eta Bea gaztea. Juanito Astarloa eta M<sup>a</sup> Asun Unibasoren orduko laurak ere ilaran: Rafa, Lourdes, Carmen eta Pilar; Joselu gerora etorriko zitzaien, boskotea osatuz.

**KARABIXA**

**KARABIXA KAFETEGIA**  
Egunero 8:30etik aurrera zabalik

Eskuz egindako  
terapietan adituak

**ARTROS**  
FISIOTERAPIA MANUAL

Probaleku 5 · 48260 · Ermua  
617 680 156  
www.artrosermua.com

**Udal Euskaltegia**  
Teresa Murga Eraikina  
Goienkale z/g 2. solairua  
ERMUA · 943 170 925  
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

**LAN BILA**

Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zain-tzeko, edo garbiketa lanak egiteko. Astelehenetik ostiralera. Orduka.  
© 681 310 989.

Neska gaztea, arduratsua eta esperientziaduna eskaintzen da pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo garbiketa lanak orduka egiteko. Egunez zein interna bezala.  
© 632 044 001

Neska eskaintzen da umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanetarako. Esperientziarekin. Orduka, jardun erdia edo osoa. Berehala hasi naiteke lanean.  
© 632 41 53 74.



Urtarrilaren 18an  
Zorionak Prisca!  
5 urte beteko dituzu, neska handi! Oso ondo pasatu zure egunean. Maite zaitugu!!



Otsailaren 4an  
Zorionaaaak Olaia!  
10 urte jada! Muxu erraldoi bat familiaren partez. Maite zaitugu!!!



Otsailaren 8an  
Zorionak Ekia! 8 urte!! Patxo eta besarkada pila familia osoaren partez!!



Urtarrilaren 20an  
Zorionak Henar,  
etxeko guztien partez. Ondo pasatu zure egunean. Musu handi bat!!! Lander, ama eta aita.



Otsailaren 5ean eta 14an  
Zorionak Luka eta Claudia. 8 eta 4 urte jada!!! Etxeko superheroiak zaretela argi utzi duzue! Izugarri maite zaituztegu!! Ama eta aita.



Zorionak Joel (abenduaren 21ean) eta Mara (urtarrilaren 27an)  
Muxu pila bat familiaren partez. Asko maite zaituztegu!!



Otsailaren 8an  
Zorionak Luken zure 12. urtebetetzean. Gizontxo bat zara ja!!!! Musu handi bat guztien partez.

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezu elektronikoa helbide honetara:  
**drogeten@gmail.com**  
Azken eguna: **Otsailaren 17a.**

**Enter**  
INFORMÁTICA  
SALMENTAK  
IRAKASKUNTZA  
ZERBITZU TEKNIKOA  
VI. Mendeurrena 19, behea  
943 17 90 37  
enter@informaticaenter.com

**arral**  
aral97.com  
Telf.: 943 17 60 75  
**banatzaile ofiziala**  
- Luis Cañas familia - Pazo Señorans - Txakoli Akarregi  
- Añada Real - Vicente Gandía - Milana  
- Yllera taldea - Oriol Rossell - La Loca Juana  
- Gomez Cruzado - Astobiza txakolina - nitida  
aral@aral97.com - Pol. Ind. Goltondo Galkoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

Hamburguesería  
**TITANIC**  
  
Pintxo dastaketa  
poteoan  
Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

**FOTOKOPIAK**  
**KOLOREZKO FOTOKOPIAK**  
**HANDIPENAK - TXIKIPENAK**  
**PLANOAK - AZALEZTAPENAK**  
**FAX PUBLIKOAK**  
**INPRIMAKETAK KAMISETATAN**  
Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

**NEREA IÑIGUEZ**  
**HORTZ KLINIKA**  
  
San Inazio 4 - Ermua  
943 030 512 / niklinika@gmail.com

**ZINEA**

*Hilaren 6tik 9ra*  
*Hilaren 13tik 16ra*  
*Hilaren 20tik 23ra*  
*Hilaren 27tik 2ra*  
 Zehaztu gabeko filmak.  
 Ermua Antzokian.  
 19:00etan.

**ZINE-KLUBA**

*Hilak 4*  
*Hilak 11*  
*Hilak 18*  
*Hilak 25*  
 Zehaztu gabeko filmak.  
 Ermua Antzokian.  
 19:00etan.

**UMEENTZAKO ZINEA**

*Hilak 7*  
*Hilak 14*  
*Hilak 21*  
*Hilak 28*  
 Zehaztu gabeko filmak.  
 Ermua Antzokian.  
 17:00etan.

**MUSIKA**

**Hilak 10:**  
 Kontzertua:  
 Zetak.  
 19:00etan.  
 Ermua Antzokian.  
 Sarrerak agortuta.



**Hilak 26:**  
 Kontzertua:  
 Arizona baby.  
 19:00etan.  
 Ermua Antzokian.  
 Sarrerak: 10€



**ANTZERKIA**

**Hilak 5:**  
 "Ene ba!",  
 Ane Gabarain,  
 Mikel Laskurain.,  
 José Cruz Gurrutxaga,  
 Alazne Etxeberria  
 eta Asier Sotarekin.  
 19:00etan.  
 Ermua Antzokian.  
 Sarrera: 10€



**Hilak 19:**  
 "La coartada",  
 María Castro,  
 Gorka Otxoa  
 eta Miguel  
 Hermosorekin.  
 19:00etan.  
 Ermua Antzokian.  
 Sarrera: 15€



**UMEENTZAKO EKITALDIAK**

**Hilak 6:**  
 Umeentzako ikuskizuna:  
 "Crusoe",  
 Markeliñeren eskutik.  
 17:00etan.  
 Ermua Antzokian.  
 Sarrera: 4€



**Hilak 20:**  
 Umeentzako  
 ipuin-kontaketa.  
 17:30ean.  
 Lobiano Kulturgunean.

**ERAKUSKETAK**

**Hilaren 2tik 14ra:**  
 Komikia:  
 "Otzi, komiki  
 kalkolitiko bat".

**Hilaren 16tik 8ra:**  
 Argazkiak eta eskulturak:  
 Julio Mendikuteran lanak.  
 Lobiano Kulturgunean.  
 18:00etatik 20:00etara.

Patxi López

**TXINDURRI  
 TALDEA  
 Tokian  
 tokiko**

**PRO  
 arraindegia**

**ITSASKIAK  
 ARRAIN FRESKOAK  
 ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21  
 943 17 16 96  
 ERMUA

**Infreñu  
 Taberna**

Kardenal Orbe plaza  
 943 174584  
 www.infretaberna.com

**ALBOKA**

**MUSIKA  
 ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardinoa
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com



**ETOR ZAITEZ GURE ESKOLA EZAGUTZERA!**  
**D eredua**

**MATRIKULAZIOA**

**URTARRILAREN 18tik**  
**URTARRILAREN 29ra**

**KONTAKTUA**

**943 17 90 36**  
**[matrikula@eskolabarri.com](mailto:matrikula@eskolabarri.com)**

EUSKARAN eta gure herriko ohituretan oinarritutako hezkuntza proiektua  
Eskola Iraunkorraren Ziurtagiria (IRAES) / IKT Heldutasuna / Jantokia 2 urteko gelatik aurrera  
Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak izendatutako Proiektu Berriztatzaileak  
Laguntza Gela / Psikopedagogia Orientazio Saila  
Eskolaz Kanpoko Ekintzak/Eskolamendi /Ingelesa 3 urtetik aurrera



Zure ondoan

# ARTARRAI MENDI TALDEA



Mendi irteerak, informazioa,  
mapak, materialaren alokairua,  
federatzeko izapideak, hitzaldiak,  
ikastaroak...

**OSTEGUNERO, 19:30EAN**  
**TERESA MURGA**

**Informazio gehiago:**  
<http://artarrai.blogspot.com/>  
[artarrai@euskalnet.net](mailto:artarrai@euskalnet.net)

